

**PIKOR
TEATRO**

BEHINNUDIA

DE XUS DE LA CRUZ



Coproduce



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

araba álava

Koproduktzioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

REDNUDES

SINOPSISIA

.....

Nudeak, bideo eta argazki intimo konprometituak, lapurtuak, baimenik gabe publikatu eta sareetan biralizatuak. Ikasleen artean alarma eta gatazka gero eta handiagoak.

Instiko lagun bat desagertu da aztarnarik utzi gabe eta inork ez du kontatu nahi zer dakien.... Gezurak desmuntatzen dira baina inork ez du aurrerapausorik ematen. Arrasto filtratuak.

Brotherren hariak mugituta korua beti abesti bera kantatzen: "Jota egongo naiz igual, baina niri inork ez dit sekula ezetzik esan"

Ikuskizunaren trama nagusia Sexpreading fenomenoaren inguruan egituratzen da. Nudeen eskaera esponentzialki hazten ari den praktika da, eta horrek alarma piztu du ikastetxeetan eta areagotu ditu ikasleen arteko gatazkak.

"RedNUDES", gure proposamenak kontsentimenduaren kulturara hurbildu nahi ditu gazteak.

Pikor Teatroren RedNUDES, 14 eta 17 urte bitarteko publikoari zuzendutako areto ikuskizuna da.



AURKEZPENA

.....



Antzerkia baliabide pedagogiko gisa erabili daiteke gazteen arteko harreman afektibo-sexualetan funtsezkoa den gai bati buruzko eztabaida pizteko ikasgeletan: **kontsentimendua**.

Gure proposamenak kontsentimenduaren kulturara hurbildu nahi ditu gazteak, eta ikusarazi kultura horrek —sexuarekin ez ezik— lotura zuzena duela errespetuarekin, entzutearekin, desioarekin, berdintasunezko harremanekin eta hautatzeko aukerarekin.

Eztabaida hau plazaratzen dugu mutil askok hartu duten defentsa jarrera lasaitzeko eta planteatzeko zeinen urgentea den gizonezkoek bat egitea gizonen eta emakumeen arteko berdintasun errealarekin. Konplizitatea da gakoa eta antzerkiak bidea erraztu dezake.

“Gizonen Taldea” —berezko izaera duen pertsonaia— elementu nagusia da, beste guztien gainetik, identitate maskulinoak eraikitze garaian; izan ere, taldeak zelatatu eta zentsuratu egiten ditu bere kideek emozioak eta harremanak maneiatzeko orduan izan ditzaketen desbideratze guztiak. Disidentzia oro zigortuko da. Kultura matxista erreproduzitzen duten faktoreen artean gizonen arteko leialtasun aliantza da, segur aski, gaingaitzen zailena.

Era berean, hitz egin nahi dugu gizon talde jakin batzuk feminismoaren aurka —eta feminismoak gizartean betetzen duen rolaen aurka— bultzatzen ari diren konfrontazioaz, eta eztabaidara ekarri zenbait sektore maskulinotan (**Manosfera**) sortzen ari diren diskurtso eta erreakzio atzerakoiak. Fenomeno erreakzionario hori sareetan sortu da maskulinitate tradizionalaren krisiari erantzuna emateko. Sareetan benetako influencer gisa jokatzeko duten tipo toxikoak dabiltza, eta mutil gazteek haiei kopiaitzen dizkiete generoen arteko berdintasunean eman diren aurrerapausoen aurkako argudioak, sexu indarkeria guztiak legitimatzen dituzten diskurtsoak artikulatuz.

Halaber, zeharkabada ere, planteatu nahi dugu pornografiak baduela eragin gazteek kontsentimendua ulertzeko modu desitxuratu eta haien arteko praktika sexual hertsatzaileen normalizazioan. Pornografiak indarkeria sexuala betikitzen duten genero estereotipoak indartzen ditu.

Ikuskizunaren trama nagusia — kontakizunaren haria — Sexpreading fenomenoaren inguruan egituratzen da: “Bideo eta argazki intimo konprometituak eta lapurtuak, kontsentimendurik gabe publikatu eta sareetan biralizatzen direnak, irudiak jasotzen dituztenak kitzikatzeko asmoarekin”. Nuderen eskaera esponentzialki hazten ari den praktika da, eta horrek alarma piztu du ikastetxeetan eta areagotu ditu ikasleen arteko gatazkak.

Ikuskizuna osatzeko, teknikari eta bitartekari ekipo batek landutako material didaktiko zabala prestatu dugu, lagungarri gerta daitekeelakoan antzezlanak ikusi ondoren ikasgeletan gazteen arteko eztabaida piztu eta bideratzeko.

RedNUDES 13 eta 17 urte bitarteko publikoari zuzendutako areto ikuskizuna da eta euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daiteke. Ikuskizunaren tonua eta diskurtsoa gazteei zuzenduta dago, baina jorratzen diren gaien gaurkototasunak eta tratamendu zuzenak zer pentsatua emango die ikusle helduei ere.

BEHAR TEKNIKOAK 24 KANAL

.....

Eszenatokiaren gutxieneko neurriak

- Ahoaren zabalera: 8 m
- Hondo: 5 m
- Altuera: 4 m

Kamera beltza

Gutxieneko Indar-korronea: 20 Kw

Fokoak

- Kw 1eko 12 PC Biserekin
- 5 zkiko 12 PAR 64
- 4 PAR Led RGBW 18x8w (Konpainiak aurkezten du)
- Dimmer 24 kanaleko

Soinua

- 2 P.A.
- 2 Monitore
- Gutxienez 8 kanaleko soinu-mahaia (4 jack sarrera edo jack cannon egokigailua, bi mono bidalketa osagarri, pre-fader eta L-R irteera)

Langileak

- Areto teknikaria

Bestelakoak

- Guraize eskailera (4 m)
- Aldagelak 4 pertsonentzat, komunerako sarbidearekin
- Muntaketa: 6 ordu / Desmuntatu: Ordu bete

FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

.....

Interpreteak

Nerea Lizarralde, Ander Chamorro, Nagore
Andrés y Josu Iriarte

Teknika

Marc Cano

Soinuaren Diseinua

Marc Cano

Argien Diseinua

Javi Ulla

Jantziak

Carmen Di Bella

Komunikazioa

Mikel de Quintana

Argazkiak

Carmen Di Bella

Gida Didaktikoa

Oihan Martirena (colectivo AISE)

Euskarazko Bertsioa

Julia Marin Arteaga

Zuzendari Laguntzaile

Iraitz Lizarraga

Ekoizpen exekutiboa

Miguel Olmeda Freire, Pikor Teatro

Testuak

Xus de la Cruz

Zuzendaritza

Mikel Gómez de Segura

ARGAZKI GALERIA

.....



TEASER

.....

30-05-2025

<https://vimeo.com/1089045537>

KONTAKTUA

.....

**PIKOR
TEATRO**

info@pikorteatro.com

www.pikorteatro.com

+34 656799294

Koproduktzioa:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

araba álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS